



BASAURI
Udala · Ayuntamiento



Bandera
Berdea

BANDOA

SAN JUAN GAUEAN egin ohi diren **SUAK** direla eta, Basauriko Udalak su horiek ikuskatzea aurreikusi du, **ingurumena eta gizakien zein ondasunen segurtasuna errespetatuz egin daitezela bermatzeko.**

Egin nahi den su bakoitza Udalean erregistratu beharko da. Aldez aurretik eskaria egin beharko da, hurrengo datu hauekin: eskatzailearen izen-abizenak; helbidea; telefono-zenbakia; NANA; eta sua non egingo den. **ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA: ekainaren 20ra arte.**

Udaltzaingoak bere gain hartuko du, Babes Zibileko Boluntarioen Elkartearekin elkarlanean, suak hurrengo segurtasun-neurri hauek betetzen dituztela egiaztatzeko ardura:

- 1) Sutea, piztu aurretik, **materialak pilatuta, ez da hiru (3) metro baino altuagoa izango.**
- 2) Materialeak erregai solidoak izan behar dute. **Debekatua dago edozein motatako lehergai edo likido suharbera erabiltzea.** Debekatua dago, baita ere, ke handia sor dezaketen materialak (pneumatikoak; olioak; zuntzak; etab.) edo bereziki toxikoak edo korrosiboak izan daitezkeen gasak (plastikoak, orokorrean; PVCa; tresna elektrikoak; etab.) erabiltzea.
- 3) Sua edozein eraikin, linea elektriko, instalazio edo objektu finko edo mugikorretik eta edozein motatako ibilgailutatik hamabost (15) metrora kokatu beharko da, gutxienez.
- 4) **Debekatua dago sua urbanizatutako zoladuraren gainean egitea, asfaltoa nahiz lauzazkoa izan; debekatua dago ere ibaiertzetako bide-zorretan, Jabari Hidrauliko Publikoari dagokion Arautegiko 234. artikulua xedatutakoa beteaz, eta Uren Legearen 92. artikuluan erabakitakoaren kalterik gabe.**

Zalantzak argitu, edo iradokizunak egiteko: Udaltzaingoa (944.666.341) edota Babes Zibileko Boluntarioen Elkarte (944.260.188).

Basaurin, 2016eko maiatzaren 31n.



ALKATEA / EL ALCALDE

Andoni Busquet Elorrieta

BANDO

Ante la tradicional noche de las **HOGUERAS DE SAN JUAN**, el Ayuntamiento de Basauri ha previsto un control preventivo de las mismas al objeto de que se realicen con **respeto al medio ambiente y a la seguridad de las personas y los bienes.**

Cada hoguera deberá registrarse en el Ayuntamiento, previa solicitud en la que constarán los siguientes datos: nombre, apellidos, domicilio, número de teléfono y D.N.I. del solicitante y lugar donde se va a ubicar la hoguera. **PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES: hasta el 20 de Junio.**

La Policía Local, en coordinación con la Agrupación de Voluntarios de Protección Civil, se encargará de supervisar que las hogueras cumplan con las siguientes medidas de precaución:

- 1º **El apilamiento de materiales** que formen la hoguera, antes del inicio de la combustión, **no ha de tener más de tres (3) metros de altura.**
- 2º Los materiales combustibles serán sólidos, **prohibiéndose cualquier tipo de explosivos o líquidos inflamables.** Se prohíbe también, la utilización de materiales que puedan producir grandes cantidades de humos (neumáticos, aceites, textiles, etc.) o gases especialmente tóxicos o corrosivos (**plásticos en general, PVC, aparatos eléctricos, etc.**)
- 3º La hoguera deberá situarse a una **distancia mínima de quince (15) metros a cualquier edificación, tendido eléctrico, instalación u objeto fijo o móvil y vehículo de todo tipo.**
- 4º Queda **prohibido** colocar la hoguera **sobre pavimento urbanizado**, bien sea de asfalto o de embaldosado y **en la franja de servidumbre de paso del cauce del río**, en cumplimiento del art. 234 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico y sin perjuicio de lo dispuesto en el art.92 de la Ley de Aguas.

Para cualquier duda o sugerencia: Policía Local (944.666.341) o Agrupación de Voluntarios de Protección Civil (944.260.188).

En Basauri, a 31 de mayo de 2016.

